

LEZO / Udal Liburutegiak haurrentzako olerki eta ipuin lehiaketak antolatu du.

LEZO. DV. Lezoko Udal Liburutegiak aurten XIII. Jon Garbizu olerki saria eta XIII. Lope Isastikoa ipuin saria berriro antolatu ditu.

Sarien oinarriak hauexek dira:

Partehartzaileak, lezoarrak edo Lezoko Udal Liburutegiko bazkideak izango dira: ' A ' maila: 6 eta 7 urtekoak; ' B ' maila: 8 eta 9 urtekoak; ' D ' maila: 10 eta 11 urtekoak eta ' E ' maila: 12, 13 eta 14 urtekoak. Idazlanak, euskaraz idatzitako olerkiak (hitz jokoak barne) edo ipuinak izango dira, gai librekoak, inoiz argitara gabeak eta gehienez 3 orrikoak.

Aurkezpenerako baldintzak: Azalean izenburua idatziko da. Lan bakoitzeko gutunazal itxi bat aurkeztuko da (gutunazalaren kanpoko aldean lanaren izenburua eta egilearen adina azalduko dira, eta barruko aldean helbidea, telefonoa eta izen-abizenak).

Lana kanpoan joango da, eta gutunazala lanari grapaz josita. Orrietan edo gutunazalean ikastetxearen izena dakarren lanik ez da onartuko.

Aurkezpenerako epea

Aurkezpenerako epea eta helbidea: Idazlanak azaroaren 20tik 24ra (biak barne) aurkeztu behar dira Udal Liburutegian.

Epaimahaia: Antolatzaileek izendatuko dute eta bere erabakia onartu beharrekoa izango da. Kalitate faltan sariak eman gabe gera daitezke. Sariak, ' A ' maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (bata olerki arlorako eta bestea ipuin arlorako). ' B ' maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (arloan bakoitzeko bana). ' D ' maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (arloan bakoitzeko bana). ' E ' maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (arloan bakoitzeko bana).

Sariak Udal Liburutegian emango dira abenduaren 15ean, arratsaldeko 7:00etan.

Lanak berreskuratzeko epea: Lanak 2007ko urtarrilaren 31 bitartean berreskuratu ahal izango dira Udal Liburutegian. Epe horretan jaso ez direnak suntsitu egingo dira. Oinarrien onarpena: Lehiaketan parte hartzeak oinarri guzti hauek onartzen direla esan nahi du.

Cuenta cuentos

El próximo miércoles día 18 de octubre va a tener lugar una nueva sesión de cuenta cuentos en la sede de la Biblioteca Municipal, la tercera que se celebra en esta temporada 2006-2007 organizada por la propia Biblioteca de Lezo y que tiene como finalidad el fomento de la lectura y de la afición por la literatura entre los más pequeños.

Esta tercera sesión tendrá un marcado carácter local, dado que estará protagonizada por los célebres payasos de Lezo, Xalto, Korri ta Brinko, que narrarán a los niños historias antiguas de Lezo, bajo el título de ' Lezoko Kontu Zaharrak '. El acto dará comienzo a partir de las 18.15 horas y está especialmente pensado para niños y niñas que cuenten entre 4 y 6 años de edad. Hasta el próximo día 13 de diciembre todos los miércoles de octubre y noviembre y mediados de diciembre se seguirán sucediendo estas sesiones para niños desde 4 hasta los 9 años de edad.